

# BEGIRA\_app. Publizitate sexistaren inguruko kexak jasotzeko inprimakia

Berdez dauden eremuak **derrigorrezkoak dira**, eta **urdinak gomendagarriak**, BEGIRA - publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen erantzun pertsonalizatua jaso ahal izateko.

Deskriba ezazu iragarkia: .....  
Zein komunikabide edo euskarritan aurkitu duzu? Noiz? .....  
Enpresa iragarlea: .....  
Iragartzen den produktua/zerbitzua: .....

→ERANTSI IRUDIA

Izen-abizenak: .....  
Telefona:.....eta/edo E-mail-a:.....

- ☐ Gizonezkoa ☐ Emakumezkoa ☐ Beste identitate sexual bat
- ☐ <18 urte ☐ 18-30 urte ☐ 31-40 urte ☐ 41/-50 urte ☐ >50 urte
- ☐ Ikasketarik gabe ☐ Lehen mailakoak ☐ Erdi-mailakoak ☐ Unibertsitatekoak

Eduki sexista baten aurrean gaudela uste duzu? Azter dezagun mezua, test honen bidez:

## Emakumeen aurkako indarkeria

- ☐ Emakumeen aurkako indarkeria sexuala, fisikoa edo psikologikoa irudikatzen edo justifikatzen du.
- ☐ Osotasun fisiko edo moralaren aldetik umiliatuak eta erasotuak izan diren emakumeak aurkezten ditu.

## Hizkuntzaren erabilera sexista

- ☐ Emakumeenganako mespretxuzko hizkera erabiltzen du.
- ☐ Maskulinoa (edo femeninoa) erabiltzen du –itxuraz, behintzat– gizonak eta emakumeak adierazteko.
- ☐ Kalifikatzaile desberdinak erabiltzen ditu emakumeentzat edo gizonentzat.

## Emakumeen rola eta ikusgaitasuna

- ☐ Funtzio eta zeregin desberdinetan eta estereotipuetan diharduten emakumeak eta gizonak erakusten ditu.
- ☐ Gizonek baino independentzia, ezagutza, prestigio, diru... gutxiago duten emakumeak erakusten ditu.
- ☐ Emakumeak eta gizonak etxeko lanekin eta zaintza-lanekin lotzen dituenean, desberdin eta estereotipoetan oinarrituta aurkezten ditu batzuk eta besteak.
- ☐ Emozioei eusteko gai ez diren emakume histeriko edo irrazionalak aurkezten ditu.

## Emakumeen gorputza eta irudia

- ☐ Gorputza edo haren zatiak dekorazio-objektu ordezkagarri gisa erakusten ditu, eskaintzen den produktuaren ondoan, harekin harreman zuzenik ez badute ere.

- Gizonen sexualitatearen eta desiren zerbitzura dauden emakumeak erakusten ditu.
- Perfektutasunean-gaztetasunean-argaltasunean oinarritutako edertasun-eredu bat adierazten du, eta hori arrakastarekin lotzen du.
- Zuzendu beharreko imperfekzio- edo min-eremu gisa aurkezten du gorputza (batik bat emakumeena).
- Sexualizatu edo hipersexualizatu egiten du neskatoen eta neska gazteen gorputza.

#### **Dibertsitatea eta askotariko diskriminazioak**

- Ezkutatu edo gutxietsi egiten ditu sexualitate desberdina dutenak, jatorri, erlijio, maila ekonomiko, gaitasun funtzional... desberdinekoak.

Bidaltzaileak baimena ematen du emandako datu pertsonalak informatikoki tratatzeko –estatistika helburuetarako–eta kexak egindako bideari buruzko informazioa emateko erabiltzeko. Datuak konfidentzialtasun osoz tratatuko dira: beste pertsona batzuek ezingo dituzte kontsultatu, eta, zertarako eskatu diren, horretarako baino ez dira erabiliko. Halaber, ematen diren datu pertsonaletara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak baliatu daitezke, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, helbide honetan: [emakunde.begira@euskadi.eus](mailto:emakunde.begira@euskadi.eus).